



ORIOKO KOMUNITATE ENERGETIKOA

Orioko Udalak herrian **komunitate energetiko bat** martxan jartzeko proiektua abiatu du, **Goienerrekin** elkarlanean. Helburua Orioko etxebizitzetako energia berriztagarria eskuratzeko aukera erraztea da, **herrian bertan sortutako eguzki-energiaren bidez**.

Ekimen honen bidez, Orioko **150 etxebizitza eta merkataritza lokal inguruk** jasoko dute eguzki-plaken bidez sortutako energia fotovoltaikoa.

Testuingurua

Energia-kostuen gorakadak eta klima-aldaketaren erronkak agerian utzi dute trantsizio energetikoa sustatzeko neurriak herri mailan ere hartu behar direla.

Horregatik, eskura dituen baliabideak eta aukerak aztertu ondoren, Orioko Udalak energia berriztagarria sortzeko eta herritarren artean partekatzen bide eraginkor bat sustatzeko erabakia hartu du: **autokontsumo kolektiboa**, komunitate energetiko baten bidez kudeatua.

Energia berriztagarria herritarren eskura jartzeaz gain, behar gehien duten pertsonengana iristea da asmoa.

Ezaugarriak

Komunitate energetiko honen lehen urratsa kiroldegiko pista nagusiaren sabaian jarritako **eguzki-plaken 100kW-ko instalazio fotovoltaikoa izango da**. Instalazio horren bidez jasotako energia komunitateko bazkideen artean banatuko da, zehaztutako baldintzen arabera.

EZAUGARRIAK

- **Udalak bultzatutako ekimen publikoa** da, herri mailako antolaketa eta kudeaketa bultzatu nahi duena.
- Herritarrek ez dute hasierako **inbertsiorik egin beharko**, eta harpidetza bidez funtzionatuko du. Hau da, **kuota bat ordaindu beharko da energia-pakete baten truke**, eta horren bidez, elektrizitatearen faktura murriztea lortuko da.
- Helburua ez da, soilik, energia sortzea: **kudeaketa errazteko eta parte-hartzea sinplifikatzeko** tresnak eta laguntza-saioak aurreikusi dira, herritarrek prozesua ulertu eta erraz egin dezaten.
- Egitasmoak ikuspegi soziala txertatzeko borondatea du, energia berriztagarriaren onurak ahalik eta **herritar gehienengana** iritsi daitezen.

AURREIKUSITAKO KUOTAK

Bazkideen artean eratuko den elkarteak definituko ditu kuota hauen zenbateko zehatzak. Izan ere, energia-pakete ezberdinak sortuko dira kontsumo ohituretan oinarrituz.

100kW-ko instalazioaren onura energetikoa ahalik eta modu optimizatuenean banatuko da, eta bazkide kopuru zehatza horren arabera definituko da. Orientazio modura, ohiko etxebizitza baten kontsumoan oinarrituz, urteko kuota* **35-40€**-koa izatea aurreikusi da.

Etorkizunean, komunitatearen beharren arabera, kuota egokitzeko aukera egongo da.

* *Udaleko Gizarte Zerbitzuen bidez laguntza energetikoa jasotzen dutenek kuota salbuetsita izango dute.*

Parte-hartzaileak

Ekimenak **150 etxebizitza/merkataritza establezimenduri** eragingo die, eta Udalak aurrez zehaztuko ditu irizpideak:

Lehentasunezko profilak

- **Pobrezia energetikoari aurre egiteko laguntza jasotzen duten herritarrek.**
- **Alde Zaharreko bizilagunak:** eguzki-plakak instalatzeko mugak dituztelako eta herrian pobrezia-tasa handiena duen eremua delako (%20).
- **Merkatariak:** Energiaren kontsumo jarraitua egiten dutelako egun osoan (%20*).

Prozesua

Lanak

Orioko Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du proiektua martxan jartzeko: 124.146 euro. 100kW-eko instalakuntza kiroldegiko kantzaren sabaian jarriko da, eta aurreikuspenen arabera, instalazioa prest izango da udaberrian.

Komunitatearen osaketa, pausoka:

1. **Komunitateko bazkide izan nahi duten herritarrek, martxotik aurrera izango dute aukera proiektuan izena emateko.** Inskripzioa egiteko dokumentu hauek aurkeztu beharko dira: elektrizitatearen azken faktura, NANren kopia eta datuen babeseko dokumentua, sinatuta. Horrela, elektrizitatearen fakturan izango duten aurrezpena kalkulatu du Goienerre.
2. **Izena ematen duten herritarren profilak eta energia kontsumo ohiturak aztertuko ditu Udalak.** Izan ere, instalazioak ez du energia pilatzeko gaitasunik, eta sortzen dena momentuan iritsiko da etxeetara. Beraz, garrantzitsua da energia kontsumo ohiturak ezagutzea, banaketa optimizatu ahal izateko.
3. **Azterketaren emaitzak ikusita, bazkideen behin betiko zerrenda osatuko du Udalak.** Beharrezkoa balitz, zozketa bidez egingo da hautaketa. Eta jende asko kanpoan geratuko balitz, bigarren instalazio bat egiteko aukera aztertuko da.
4. **Komunitateko kideek elkarte bat osatuko dute, kudeaketa modu autonomoan egin ahal izateko.** Autokontsumoan parte hartuko duten guztiak izango dira elkarte horren bazkide, eta horretaz gain, gutxienez 3 kide zuzendaritza batzordean egongo dira. Dituzten arduren eta egitekoen inguruko informazio zehatza jasoko dute.



Gainerako herritarrek

Etxebizitzak hiri-lurretan kokatuta egon behar du, energia sortzen den puntutik **2 kilometrora**, gehienez.

* *Ehunekoak izen-ematearen arabera egokitu daitezke.*



Aktibazioa

Ekimena **martxan izango da 2026ko udarako**, instalazioa eginda eta komunitatea osatuta.

Jarraipena

Proba pilotu honek **lau urteko iraupena izango du**. Altak eta bajak urtero kudeatu ahal izango dira, eta komunitateko kideek egiten duten kontsumoaren eta aurrezkiaren inguruko informazioa jasoko dute, Goienerre eskutik.

COMUNIDAD ENERGÉTICA DE ORIO

El Ayuntamiento de Orio, en colaboración con Goiener, ha puesto en marcha un proyecto para crear una comunidad energética en el municipio. El objetivo es sencillo y ambicioso a la vez: **que la energía solar generada en Orio llegue directamente a los hogares y a la ciudadanía.**

Se estima que alrededor de **150 viviendas y locales comerciales** podrán beneficiarse de la energía fotovoltaica producida mediante placas solares instaladas en el propio municipio.



Contexto

El aumento del precio de la energía y los efectos del cambio climático dejan de manifiesto que la transición energética también debe impulsarse desde el ámbito local.

Tras analizar los recursos disponibles, el Ayuntamiento ha apostado por un modelo que ya funciona en otros lugares: el **autoconsumo colectivo**, gestionado a través de una comunidad energética. Esta fórmula permite generar energía renovable en el municipio y compartirla entre la ciudadanía.

Además, el proyecto incorpora una clara dimensión social: no solo se trata de producir energía renovable, sino de facilitar que llegue también a quienes más lo necesitan.

Características

El primer paso será instalar en la cubierta de la pista principal del polideportivo una planta fotovoltaica de 100 kW. La energía generada se repartirá entre las personas socias, según las condiciones que se establezcan.

CARACTERÍSTICAS

- **Es una iniciativa pública promovida por el Ayuntamiento**, con voluntad de construir un modelo local y compartido.
- **Funcionará mediante un sistema de suscripción**: no requiere una inversión inicial por parte de la ciudadanía, se abonará una cuota a cambio de un paquete de energía que permitirá **reducir la factura eléctrica**.
- El proyecto no se limita a la instalación de placas: también se facilitarán **herramientas y se organizarán sesiones informativas** para que la participación sea clara y sencilla.
- Incorpora un componente social, para que los beneficios de la energía renovable lleguen al **mayor número posible de personas**.

CUOTA PREVISTA

La comunidad se organizará como una asociación y será la propia entidad la que fije el importe definitivo de las cuotas. Se plantearán distintos paquetes, en función del consumo habitual de cada vivienda o establecimiento.

El reparto de la energía se realizará buscando la máxima eficiencia, y el número final de personas socias dependerá de ese reparto. Como referencia orientativa, en base al consumo medio de una vivienda, se calcula una cuota anual* aproximada de **35-40€**.

En el futuro, en función de las necesidades de la comunidad, se podrán ajustar las cuotas.

** Las personas que reciben ayudas energéticas a través de los Servicios Sociales municipales estarán exentas del pago de la cuota.*

Participantes

El proyecto tendrá impacto en unas **150 viviendas y comercios**, y el Ayuntamiento definirá previamente los criterios de participación.

Perfiles prioritarios

- **Personas que reciben ayudas para hacer frente a la pobreza energética.**
- **Vecindario del Casco Antiguo**, tanto por las dificultades para instalar placas solares como por ser una de las zonas con mayor tasa de pobreza del municipio (20%*).
- **Comercios**, por mantener un consumo energético continuado durante el día (20%*).

Proceso

Obras

El Ayuntamiento de Orio ha recibido una subvención de la Diputación Foral de Gipuzkoa para poner en marcha el proyecto: 124.146 euros. La instalación de 100 kW se colocará en la cubierta de la pista del polideportivo y, según las previsiones, estará lista en primavera.

Siguientes pasos para crear la comunidad:

- 1. A partir de marzo se abrirá el plazo de inscripción.** Las personas interesadas deberán presentar: la última factura de electricidad, una copia del DNI, y el documento de protección de datos firmado. Con esa información, Goiener calculará el ahorro estimado en la factura.
- 2. Al mismo tiempo, el Ayuntamiento analizará el perfil de las personas inscritas y sus hábitos de consumo.** La instalación no contará con baterías de almacenamiento: la energía se reparte en el momento en que se genera. Por eso es importante conocer cómo y cuándo se consume, para organizar el reparto de la forma más eficiente posible.
- 3. Tras ese análisis, el Ayuntamiento elaborará la lista definitiva de personas socias.** Si fuera necesario, la selección se realizará mediante sorteo. En caso de que quedara un número elevado de personas fuera, se estudiará la posibilidad de impulsar una segunda instalación.
- 4. Por último, las personas participantes constituirán una asociación para gestionar el proyecto de forma autónoma.** Todas serán socias de la asociación y, al menos, tres integrarán la junta directiva. Se ofrecerá información detallada sobre funciones y responsabilidades.



Resto de la ciudadanía

En el resto de casos, la vivienda deberá estar situada en suelo urbano y a un máximo de **2 kilómetros** del punto de generación de la energía.

** Los porcentajes podrán ajustarse en función del número de inscripciones.*



Puesta en marcha

Una vez finalizada la instalación y constituida la comunidad, el proyecto empezará a funcionar en el **verano de 2026**.

Seguimiento

Se trata de un proyecto piloto con **una duración de cuatro años**. Las altas y bajas podrán gestionarse anualmente y, con el acompañamiento de Goiener, las personas participantes recibirán información sobre su consumo y el ahorro obtenido.